

## 2339

AGINDUA, 2007ko martxoaren 16koa, Kultura sailburuarena, Larraulgo (Gipuzkoa) Sorarrain baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituen.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2007ko urtarrilaren 12ko Ebazpenaren bidez Larraulgo (Gipuzkoa) Sorarrain baserriak aurkezten zuten balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko otsailaren 8ko EHAA (28. zk.) argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientearen jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikuluko horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertutik ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

## EBATZI DUT:

**Lebenengoa.**— Larraulgo (Gipuzkoa) Sorarrain baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

**Bigarrena.**— Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formal egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorritz.

**Hirugarrena.**— Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari agindu honen berri ematea.

**Laugarrena.**— Larraulgo Udaleri bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

## 2339

ORDEN de 16 de marzo de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Caserío Sorarrain en Larraul (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del caserío Sorarrain en Larraul (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 12 de enero de 2007, publicada en BOPV n.º 28, de 8 de febrero, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe del caserío Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

## RESUELVO:

**Primero.**— Inscribir el Caserío Sorarrain en Larraul (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

**Segundo.**— Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

**Tercero.**— Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

**Cuarto.**— Instar al Ayuntamiento de Larraul para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

**Bosgarrena.**— Espedienteko interesdunei, Larraulgo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari agindu hau jakinaraztea.

**Seigarrena.**— Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**— Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

**Bigarrena.**— Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan bi hilabeteko epean, Agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 16a.

Kultura sailburua,  
MIREN AZKARATE VILLAR.

#### I. ERANSKINA

##### Mugapena

###### a) Mugapenaren nondik norakoak.

Mugapenaren barruan dago, batetik, eraikina bera, eta bestetik, bere ingurua. Horrela, hauek dira mugapen horren mugak: NEan, fatxadatik 30 metrora dagoen lerro paraleloa. Mugapen horren barruan dago baserriaren eranskin exentu bat, eta Abeletxe baserrira doan herri-bidearen zati bat. SWean, fatxadatik 30 metrora dagoen lerro paraleloa. Horren barruan dago baserriarena den eranskin exentu bat. NWean fatxadatik 30 metrora dagoen lerro paralelo bat, eta azkenik, SEan, Abeletxe baserrira, Intxausti baserrira eta Sorarrain baserrira bertara doan bide publikoaren ertza.

###### b) Mugapenaren justifikazioa.

Proposatutako mugapen horrek justifikazioa dauka Sorarrain baserriaren ingurumen- eta bista-balioak zaindu beharra dagoelako; baserria aldapa handiko hegalean dago, Usarrabi amildegiaren gainean, Sorarrain izeneko auzoan. Ingurua mugatu beharra dago ondasuna behar bezala zaintzeko eta balioa emateko, eta, horretarako, zaindu egin behar dira baserriaren aldame-

**Quinto.**— Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Larraul, a los Departamentos de Cultura y Ordenación y Promoción Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

**Sexto.**— Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**— Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2007.

La Consejera de Cultura,  
MIREN AZKARATE VILLAR.

#### ANEXO I

##### Delimitación

###### a) Descripción de la delimitación.


La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites: al NE una línea paralela distante 30 metros de la fachada. Dentro de esta delimitación se incluye un anejo exento que pertenece al caserío y un sector del camino público de acceso al caserío Abeletxe. Al SW una línea paralela situada a 30 metros de la fachada. Dentro se incluye un anejo exento que pertenece al caserío. Al NW una línea paralela situada a 30 metros de la fachada y finalmente al SE el borde del camino público de acceso al propio caserío Sorarrain, al caserío Abeletxe y al caserío Intxausti.

###### b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Sorarrain, situado en una ladera de fuerte pendiente sobre el barranco de Usarrabi, en el barrio del mismo nombre de Sorarrain. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien catalogado, implica la protec-

nak —hau da, inguruko lur-sailak eta baserriko bidea—  
baserriak berezko duen izaerari eusteko. Horregatik,  
mugapen honen barruan doa baserriaren eraikina bera  
ez ezik, baita haren ingurua ere.

ción del caserío espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.



## II. ERANSKINA

## Deskripzioa

Familia bakarreko baserria, 20 x 20 m-ko oin karra-tukoa, soto eta ganbarekin, aldapa handiko hegaltan. Hodi-teilako bi isurkiko teilatua, SEra begira dagoen fatxada nagusiarekiko perpendikularra den gailurra duela. Fatxada nagusia pieza bakarreko lau zutoi-nen gainean doa, petral luzez eta besodun indargarriz lotuta. Baditu tartetan bilbadurak ere, gehienak bertikalean. Lehen solairuko forjatuaren parean soliben muturrak ageri dira. Bao guztiak harlangaitz zarpiatu eta zuriz margotuz beteta daude. Konposizioa simetrikoa da, eta bi leiho-lerro ditu, lehen solairuaren eta ganbarearen parean. Ganbarako leihoen gainean dago horma pikoa, oholtzaz itxia. Fatxadaren markoan hareharri landuko bi eskantzu daude. Lehen solairuko forjatuaren parean dagoen zementuzko terraza atxiki batek fatxadaren zati bat betetzen du. Gaur egun, eraikinaren sarrera NEan dago: etxean sartzeko ateburudun ate bat dago han, eta beste bat ate bat ukuilurako. Alde horretan arku bat dago, segur aski karpanela, gaur egun erabat itxia; arku hori garai batean orain sukaldea denaren parean zabaltzen zen. SWko fatxadan arku zorrotzeko formako sarrera bat dago, dobela luzeekin, eta arku karpaneleko beste sarrera bat, biak ere hareharri landukoak. Atzeko NWko fatxada baxua da, lurraren malda dela-eta. Fatxada nagusia ez ezik, gainerako fatxadak ere zarpiaturik eta zuriz margoturik daude. Baserriko sotoa edo ataripea, lurraren malda aprobetxatuz eraikia, eraikinaren SEan dago. Gaur egun zati batean itxia dagoen soto edo ataripe honek sarrerak zituen NE eta SW aldeetan, azken horretako sarrerak besterik ez du iraun.

Eraikin honen armadura pieza bakarreko bederatzi zutoi-nen gainean dago, harlanduzko zapaten gainean. Egitura simetrikoa da, eta zurezko aho-ziri eta kabilaz mihiztatutako habe, soliba eta beso handiz armatua. Egituraren piezetan erromatar zenbakiak ageri dira, zurgin-markaz eginak. Horren gainean dago teilatua, bere petral, gapiro eta latatu eta guzti.

Sorarrain baserria Erdi Aroan sortutakoa izango da segur aski. Atzeko hiru horma-arteak XVI. mendeko baserri batetik berrerrabiltakoak dira. XVIII. mendearen hasieran erabat berregin eta zabaltzen, gaur egun itxura hartu arte.

## ANEXO II

## Descripción

Caserío unifamiliar de planta cuadrada de 20 x 20 m, dos plantas, bodega y desván situado en una ladera de gran pendiente. Cubierta a dos aguas de teja canal con gallur perpendicular a la fachada principal de orientación SE. La fachada principal se alza sobre 4 postes enterizos unidos por largas correas y refuerzos con tornapuntas. Posee también entramados intermedios en sentido vertical en su mayoría. A altura del forjado de la primera planta son visibles los extremos de la solivería. Todos los vanos están rellenos de mampostería rasada y pintada de color blanco. La composición es simétrica, poseyendo dos líneas de ventanas dispuestas a la altura de la primera planta y del desván. Sobre las ventanas del desván se sitúa el hastial cerrado con tablazón. La fachada se halla enmarcada entre dos esquinales de piedra sillar de arenisca. Una terraza de cemento adosada y situada a la altura del forjado de la planta baja ocupa y cubre parte de la fachada. Actualmente se accede al edificio desde el lado NE donde se sitúa una puerta adintelada de acceso a la vivienda y otra a la cuadra. También en este lado existe un arco, posiblemente carpanel, hoy totalmente cegado, y que se habría a la altura de la actual cocina del caserío. La fachada SW presenta un acceso en arco apuntado con largas dovelas y otro en arco carpanel, ambos con piedra sillar arenisca. La fachada trasera NW es corta debido al desnivel del terreno. Además de la fachada principal el resto de fachadas se hallan rasadas y pintadas en color blanco. La bodega o soportal que posee este caserío, construida aprovechando el desnivel del terreno, ocupa la zona SE del edificio. Esta bodega o soportal, hoy en parte cerrada, antiguamente poseía accesos por los lados NE y SW, subsistiendo este último acceso.

La armadura de este edificio se levanta sobre nueve postes enterizos apoyados en zapatas de piedra sillar. La estructura, simétrica, se halla armada con grandes vigas, solivos y tornapuntas ensambladas mediante cajas y clavijas de madera. Las piezas de la estructura presentan marcas de carpintería con numerales romanos. Sobre ésta se apoya la cubierta con sus correas, cabrios y el enlatado.

Sorarrain es un caserío probablemente de fundación medieval. Las tres crujías traseras están reutilizadas de un caserío construido en el siglo XVI. A principios del siglo XVIII la casa fue rehecha y ampliada totalmente hasta adquirir la actual fisonomía.